

GORPUTZA, IDENTITATEAK ETA GIZARTE EGITURAKETA

Lan honetan Mari Luz Estebanen *Antropología del cuerpo* eta David Le Breton-en *lo inaprehensible del cuerpo* testuak laburtuko ditugu. Bietan, izenburuek argitzen duten bezala, gorputza da abiapuntua; zehatzago, **gorputza eta Modernitatearen arteko harremana**. Izan ere, Mari Luz Estebanen arabera, XX mende amaiera eta XXI mende hasieran, gorputza aldarrikatzen den zerbait bihurtu da, berezko helburu bat, altxor baten moduan zaindu beharrekoa (Ariès y Duby 1989, 102 in Esteban 2013, 72). Bestetik, Modernitatean kokatu izanak gorputza bera, agerian uzten du nola **eraikuntza sozio-kulturala** bat den honakoa. Adibidez, Berpizkunde garaitik aurrera, non indibidualismoa gailentzen hasi zen, gizakia bere gorputza jabetza gisa ulertzen hasi zen, gorputza bere buruaren mugak zein askatasunaren esparru izanik (Le Breton 1990, 14).

Arestian aipatutakoari jarraiki, gorputzarekiko obsesio hau, gizarte **indibidualista** eta kontsumista baten barruan ulertu behar dugu, gorputza **status**-aren adierazgarria bihurtzen delarik, behar den bezala (dieta, ariketa fisikoa...) zainduz gero (Callomocps 1993, 83 in Esteban 2013, 72). Bestetik, Le Breton-en hitzetan (1990, 14) gorputzaren inguruko jakintza esparru ezberdinak garatzen hasi ziren horretan, indibidualismoaren, NIaren beste etapa bat ezagutzen ari gara, subjektuak atomo hutsak direlarik. Hala, indibidualismoa gizartearen egituraketaren bereizgarri nagusienetakoa dugu azken mendeotan (Le Breton 1990, 14). Hari horretatik tiraka, XX mendearen erdialdean gorputzen **diziplinarizaziorako** hainbat mekanismo eta instituzio garatzen joan dira, hauen artean, ospitaleak, ejerzituak, eskolak ditugularik. Hauek guztiek biztanleriaren nahiz indibiduen **kontrol soziala** dute helburu, gorputza bera erabiliz. (Foucault 1992 in Esteban 2013, 72). Hala ere, ezin dugu ahaztu zein den azkenengo helburua: kapitalismoari **produktiboak** izango zaizkion pertsonak sortzea.

Gorputzetik burutzen erregulazio hau bi faktoreren arteko kontraesanean perfektuan datza gaur egunean Estebanen hitzetan (Esteban 2013, 72): alde batetik, kontsumoaren bultzada arlo askotan; kirola, itxuraren zaintza, sexualitatea eta elikadura, kasu; baina bestetik, norberaren kontrola zein diziplina sustatzea, gizartearen parte hartzen zaigunik ekoizpenerako gaitasuna dugun heinean Susan Bordok dioen bezala (1990). Azaldutako kontraesan honetatik jarraiki, lanean eta ekoizpenean erabat zentratuta dagoen NI-aren morala garatzen dugun heinean, gure plazerrak etengabe asetzerak bultzatzen zaigu, kontsumoa honetarako tresna delarik (Esteban 2013, 72)

Le Breton-en eskutik (1990, 15), gorputzaren garrantziaren gailentzearen harira, beste kontraesan bat nabarmentzen da. Lehen aipatu bezala, indibidualismoa gizartearen egituraketarako ezinbestekoa den honetan, eragileen esperientzia sozialaren eta sinbologiaren arteko banantze bat eman da; hau da, gizarte prozesuak azkartu dira kulturaren “garapenik” gabe. Honek gizakia bakardadera lerrarazi du, bizitzaren arazoei berak bakarrik irtenbideak bilatzen dizkielarik, ezin baitu babes hori elementu kultural ohikoetan topatu. Beraz, **gorputza eta nortasunaren arteko lotura** argi bat dagoela baieztatu dezakegu. Mari Luz Esteban ere mintzatzen zaigu harreman honen inguruan, nahiz eta beste ikuspegi batetik heltzen dion gaiari. Honen ustetan, gorputz itxura eta gorputz indibidual eta soziala ezinbestekoak dira gizabanakoen **nortasunaren eraikuntzan**. (Esteban 2013, 73). Gure gizartearen, subjektua entitate indibidual batek osatzen du, honen mugak gorputzaren azalean daudelarik, baina baita ere gorputz identitate ideal askoren eragina jaiotzen garenetik jasan behar dugu, publizitate zein kontsumoaren eremuetan (Falk 1994 in Esteban 2013, 73).

Laburpenarekin amaitzeko, interesgarria iruditu zaidan Estebanen hausnarketa bat gogora ekarri nahiko nuke. Izan ere, nahiz eta egia den gorputzarekiko miresmena funtsezkoa dela egungo testuinguruan, honakoa ez da edonon gauzatzen, baizik eta araututa dago. Gorputzaren garrantzia gizartearen eremu jakin batzuetan islatzen da, bereziki komunikabideetan, kirolean, publizitatean...

Halaber, ikusgarriak diren gorputzak gehienetan ez dira egunerokoak topatzen ditugunak bezalakoak, ezaugarri jakin batzuk dituzten baitira (gaztetasuna, edertasuna). Beraz, gorputzaren askatasuna plano idealean baino ezin dugu aurkitu, egunerokoan gorputzari inposatzen zaizkigun mugak baino ez baitugu topatzen (Esteban 2013, 73).

NAHIA SANTANDER

BIBLIOGRAFIA

- Esteban, Mari Luz. 2013. *Antropología del cuerpo: género, itinerarios corporales, identidad y cambio*. Barcelona: edición Bellaterra.
- Le Breton, David. 1990. *Antropología del cuerpo y modernidad*. Itzul. Paula Mahler. France: Presses Univers